Yogyakartako Printzipioak

Giza eskubideen nazioarteko
legeria sexu orientazioari
eta genero identitateari buruzko
gaietan aplikatzeko printzipioak

Giza eskubideen nazioarteko legeria sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko gaietan aplikatzeko printzipioak

www.yogyakartaprinciples.org

Ingelesezko bertsioa da testu baimendua. Badira beste hizkuntza batzuetarako itzulpen ofizialak ere: arabiera, txinera, frantsesa, errusiera eta gaztelania. 2007ko martxoa

ARGITALPENA: ALDARTE, Lesbiana, Gay eta Transexualen Arreta Zentroa • C/Berastegi, 5-5º - 48001 BILBAO
Tel.944237296 • www.aldarte.org • aldarte@aldarte.org

ITZULPENA: Jone Aldamiz-Etxebarria eta Bego Montorio

DATA: 2010eko urria

LEGE GORDAILUA: BI-3377-2010

ALDARTE
CENTRO DE ATENCIÓN A GAYS, LESBIANAS Y TRANSEXUALES
LESBIANA, GAY ETA TRANSEXUALEN ARRETA ZENTROA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
Justizia Sailburuordetza
Giza Eskubideen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Viceconsejería de Justicia
Dirección de Derechos Humanos

Aurkibidea

Aurkezpena 4

Sarrera 5

Aitzinsolasa 7

1 Printzipioa. Pertsona orok du giza eskubideak izateko eskubidea 9

2 Printzipioa. Berdintasunerako eskubidea eta diskriminatua ez izatekoa 9

3 Printzipioa. Nortasun juridikoa onartua izateko eskubidea 11

4 Printzipioa. Bizitzeko eskubidea 12

5 Printzipioa. Norberaren segurtasunerako eskubidea 12

6 Printzipioa. Pribatutasunerako eskubidea 13

7 Printzipioa. Hautamenez atxilotua ez izateko pertsona ororen eskubidea 14

8 Printzipioa. Epaiketa zuzena izateko eskubidea 15

9 Printzipioa. Askatasunik gabe den pertsona orok gizalegezko tratua jasotzeko eskubidea 16

10 Printzipioa. Ez torturarik, ez tratu edo zigor krudel, jasangaitz edo iraingarririk ez jasateko pertsona 17

11 Printzipioa. Pertsonen esplotazio eta salerosketa modu guztietatik babestua izateko eskubidea 18

12 Printzipioa. Lan egiteko eskubidea 19

13 Printzipioa. Gizarte segurantza eta gizarte babeserako bestelako neurriak izateko eskubidea 19

14 Printzipioa. Bizi-maila egokia izateko eskubidea 20

15 Printzipioa. Etxebizitza egokia izateko eskubidea 20

16 Printzipioa. Hezkuntzarako eskubidea 21

17 Printzipioa. Ahalik eta osasunik onena izateko eskubidea 22

18 Printzipioa. Mediku gehiegikerietatik babestua izateko eskubidea 23

19 Printzipioa. Iritzi eta adierazpen askatasunerako eskubidea 24

20 Printzipioa. Bakean batzartu eta elkartzeko askatasunerako eskubidea 25

21 Printzipioa. Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna izateko eskubidea 26

22 Printzipioa. Aske mugitzeko eskubidea 27

23 Printzipioa. Asiloa lortzeko eskubidea 27

24 Printzipioa. Familia sortzeko eskubidea 28

25 Printzipioa. Bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea 29

26 Printzipioa. Kultur bizitzan parte hartzeko eskubidea 30

27 Printzipioa. Giza eskubideak sustatzeko eskubidea 30

28 Printzipioa. Baliabideak eskuratu eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea 31

29 Printzipioa. Erantzukizuna 32

Gomendio gehigarriak 33

Yogyakartako printzipioen sinatzaileak 35

Aurkezpena

Sexu aniztasunari eta giza eskubideei buruzko aurreko liburuxkan, giza eskubideen bilakaerari eskainitako atalean, Yogyakarta-ko Printzipioak bazirela eta horien sorreraren nondik-norakoak aipatu genituen. Giza eskubideei buruzko beste informazio liburuxka honen helburua, berriz, printzipio horietako bakoitzaren berri ematea da.

Euskarara ere itzuli nahi izan ditugu, eta horretarako 2007ko Yogyakarta-ko printzipioen txostenean agertzen diren gaztelaniazko eta frantseseko testu baimenduak erabili ditugu. Arrazoi nagusi batek eraman gaitu euskarara itzuli nahi izatera: ezer gutxi dakigu printzipio horiei buruz giza eskubideen, sexu orientazioaren eta genero identitatearen alde dihardugun gizarte eragileok.

Pentsatzen dugu Yogyakarta-ko printzipioek esparru arauemaile interesgarria eskaintzen digutela, eta tresna eraginkorra dira gay, lesbiana eta transexualen eskubideak behar bezala defendatzeko eta babesteko.

Sexu eskubideak –eta, bereziki, gay, lesbiana eta transexualena– herritartasunaren eta giza eskubideen arabera enfokatzea nahiko kontu berria da, eta ALDARTEn pentsatzen dugu, hori dela-eta, oraindik ere, Giza eskubideen alderdi hori harrigarria egiten zaigula, ezezaguna, eta maiz bigarren mailako eskubidetzat jotzen ditugula benetako garrantzia duten beste eskubide batzuen aldean, direla gosea, gerrak, bakea eta abar. Hori, nolanahi ere, aldatzen ari da, eta gehiago aldatu behar du.

Dokumentuaren sarreran bertan irakur dezakegu zer-nolako garrantzia duten printzipio hauek, zeren nabarmen adierazten baitute estatuak beharturik daudela giza eskubideak betearaztera.

LGTBen esparruan dihardugun erakundeok askotan hurbildu gara Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapen Unibertsalera, mundu osoko gay, lesbiana eta transexualek jasaten dituzten jazarpen eta diskriminazioen aurka egiteko asmoz. Horrela jardungo dugu aurrerago ere, jazarpen eta diskriminazio horiek guztiak amaitu arte. Nolanahi ere, iruditzen zaigu gaur egun beharrezkoa dugula Yogyakarta-ko printzipioak ezagutarazten ahalegintzea, geure egin ditzagun eta mundu osoan ezar daitezen, oso printzipio zehatzak baitira guztiak ere. Printzipio bakoitzarekin batera, gomendio zehatzak egiten zaizkie estatuei, baina, horretaz gain, behin eta berriz azpimarratzen dute partaide guztien erantzukizuna dela giza eskubideak sustatzea eta babestea.

ALDARTEren lan ildoetako bat sexu eskubideak sustatzea eta ezagutaraztea da, eta, horrekin batera, gay, lesbiana eta transexualen eskubideak indartzen jarraitzea. Gure gogo eta nahi bizia da GLTBen elkarteek, Giza Eskubideen aldeko GKEek eta erakundeek bat eginik jardun dezagun printzipio hauek gure herrialdean zein mundu osoan ezar daitezen. Espero dugu buletin hau baliagarri izatea jardunbide horretan.

Sarrera

Gizaki guztiak sortzen dira libre, eta jaiotzez dira berdinak duintasunean eta eskubideetan. Orok dituzte giza eskubideak, eta eskubide horiek osagarriak, banaezinak eta elkarren mendeko dira. Sexu orientazioa[1] eta genero identitatea[2] funtsezkoak dira pertsona ororen duintasunerako eta gizatasunerako, eta ez dira behin ere bereizkeria nahiz gehiegikerietarako aitzakia bihurtu behar.

Sexu orientazio eta genero identitate guztietako pertsonak gainerako guztiek merezi duten duintasun eta errespetu berberaz bizi daitezen bermatzeari dagokienez aurrerapausu nabarmenak. Estatu ugarik dauzkate, gaur egun, berdintasuna eta bereizkeria eza bermatzen dituzten lege nahiz konstituzioak, sexua, sexu orientazioa nahiz genero identitatea bereizi gabe.

Halaz ere, sexu orientazioan nahiz genero identitatean oinarritutako bortxaketak –errealak zein hautemanak– ongi errotutako eredu global dira oraindik ere, eta hori oso kezkagarria da. Bortxakeria horien artean dira judizioz kanpoko hilketak, tortura eta tratu txarrak, sexu erasoak eta bortxaketak, bizitza pribatuan esku sartzeak, bidegabeko atxiloketak, enplegua nahiz hezkuntza aukerak ukatzea eta beste giza eskubide batzuk baliatzerakoan gertatu ohi diren bereizkeria larriak. Eta, maiz, larriagotu egiten dituzte bortxakeria horiek arrazan, adinean, erlijioan, ezgaitasunean edota baldintza ekonomiko, sozial nahiz beste motakoetan oinarritutako gorroto, bereizkeria, bazterkeria eta bestelako bortxakeria moduen gisako bizipenek.

Estatu eta gizarte askok sexu orientazioari eta genero identitateari dagozkion arauak ezartzen dizkiote jendeari, ohiturak, legeak eta indarkeria baliatuz; eta ahalegindu ere egiten dira pertsonek bizi dituzten harremanak eta beren buruak definitzeko duten modua kontrolatzen. Sexualitatearen jagoletza da, oraindik, generoan eta generoen arteko desberdintasunean oinarritutako indarkeria iraunarazten duen indarretako bat.

Nazioarteko sisteman aurrerakuntza handiak gertatu dira genero arteko berdintasuneranzko bidean bai eta gizartean, erkidegoan nahiz familian gertatzen den bortxakeriaren aurka hartutako babes neurrietan ere. Horrezaz gainera, Nazio Batuetako giza eskubideen mekanismo nagusietako zenbaitek berretsi egin dute estatuek duten obligazioa pertsona guztiak eraginkortasunez babesteko sexu orientazioan eta genero identitatean oinarritutako bereizkeriaren aurrean. Nazioarteko erantzuna, ordea, bakandua eta ahula izan da sexu orientazioan eta genero identitatean oinarritutako giza eskubideen bortxaketei dagokienez.

---

[1] Sexu orientazioa da norbanakoak bere generokoak diren pertsonenganako edo ez direnenganako, nahiz genero bat baino gehiagokoenganako erakarpen emozional, afektibo eta sexual sakona sentitzeko gaitasuna, bai eta pertsona horiekin harreman estuak eta sexualak izateko gaitasuna ere.

[2] Genero identitatea norberak generoaz duen barne bizipena da, bakoitzak sakonean sentitzen duen moduan; eta hori bat etor daiteke, ala ez, jaiotzazko sexuarekin. Bizipenaren barne daude gorputzaren bizipen pertsonala (batzuetan itxura edota gorputz funtzioak aldaraztera ere irits daiteke mediku, kirurgi nahiz bestelako bitartekoak baliatuz, betiere aukera hori nahita egin denean) bai eta bestelako genero adierazpenak ere, hala nola janzkera, hizketa modua eta jokamoldeak.

Egoera horri aurre egiteko, giza eskubideen alorreko nazioarteko lege erregimena sakonki ulertu behar da bere osotasunean, bai eta ulertu ere, lege horiek nola aplikatzen zaizkien sexu orientazio eta genero identitatearen inguruko arazoei. Eta erabakitzailea da, erabat, ondo argitzea eta biltzea zer betebehar dituzten estatuek –nazioarteko legeriaren mendean–, berdintasuna oinarri hartuta eta batere bereizkeriarik gabe, pertsona guztientzako giza eskubideak sustatu eta babesterakoan.

Juristen Nazioarteko Batzordeak eta Giza Eskubideetarako Nazioarteko Zerbitzuak, giza eskubideen erakundeen koalizio baten izenean, egitasmo bat abiarazi dute sexu orientazioan eta genero identitatean oinarritutako bortxakeriei giza eskubideei buruzko nazioarteko legeria ezartzeko printzipio juridiko sorta bat garatzeko asmoz, giza eskubideen alorrean estatuek dituzten obligazioak argi egon eta koherenteak izan daitezen.

Giza eskubideetako aditu gorenez osatutako talde batek idatzi, garatu, eztabaidatu eta orraztu ditu printzipio horiek. Indonesiako Yogyakartako Gadjah Mada Unibertsitatean 2006ko azaroaren 6tik 9ra bildu ondoren, 25 herrialdetako diziplina anitzetako aditu ospetsu eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen alorrean eskarmentu handikoek, aho batez onartu zituzten *Giza Eskubideen Nazioarteko Legeria Sexu Orientazioari eta Genero Identitateari buruzko gaietan aplikatzeko Yogyakartako Printzipioak*.

Batzarreko errelatore Michael O'Flahertyk ekarpen mardulak egin dizkio printzipioen idazketari eta berrikuspenari. Emaitzak arrakasta izan badu, haren konpromiso eta ahalegin nekaezinari esker izan da neurri handi batean.

Yogyakartako printzipioek giza eskubideen arau sorta zabal bati begiratzen diote, bai eta horiek sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko kontuetan aplikatzeko moduari ere. Printzipioek giza eskubideak aplikatzeko estatuek duten obligazio behinena berresten dute. Printzipio bakoitzak erantsiak ditu estatuei zuzendutako gomendio xehetuak. Hala ere, aditu guztiek azpimarratzen dute egile orok duela erantzukizuna giza eskubideak sustatu eta babesterakoan. Printzipioek barne hartzen dituzte, halaber, beste zenbait eragileri –NBEko giza eskubideen sistemari, giza eskubideen instituzio nazionalei, komunikabideei, gobernuz kanpoko erakundeei eta finantza agentziei, kasu– zuzendutako gomendio gehigarriak.

Adituen ustez, Yogyakartako printzipioetan, sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko kontuen inguruko giza eskubideen nazioarteko legeriaren egungo egoera islatzen da. Era berean, bat datoz esatean estatuak bestelako obligazioak ere hartuz joan daitezkeela, giza eskubideen alorreko legeria bilakatuz doan neurrian.

Yogyakartako printzipioek estatu guztiek bete behar dituzten nazioarteko arau legal lotesleak berresten dituzte. Era berean, bestelako etorkizun bat iragartzen dute, zeinetan, aske eta duintasunean eta eskubideetan berdin jaioak izaki, pertsona orok gauzatu ahal izango baititu jaiotzean egokitutako eskubide baliotsu horiek.

Sonia Onufer Corrêa – Lehendakarikidea
Vitit Muntarbhorn – Lehendakarikidea

Geuk, giza eskubideen nazioarteko legerian eta sexu orientazio nahiz genero identitatean adituen nazioarteko taldeak

Aitzinsolasa

● **Gogoan izanik** gizaki guztiak sortzen direla libre, eta berdinak direla jaiotzez duintasunean eta eskubideetan, eta pertsona orok duela giza eskubideak izateko eskubidea, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa nahiz beste edozein eratakoa, jatorri nazionala zein soziala, egoera ekonomikoa, jaiotza nahiz beste edozein egoeraren karietara bereizketarik jasan gabe;

● **Kezkaturik** munduko eskualde guztietako pertsonek beren sexu orientazioa nahiz genero identitatea dela eta, indarkeria, jazarpena, bereizkeria, bazterkeria, estigmatizazioa eta aurreiritziak jasaten dituztelako; beste bereizkeria batzuek, hala nola arrazak, adinak, erlijioak, ezgaitasunak, osasun egoerak eta egoera ekonomikoak egoera horiek larriagotzen dituztelako; indarkeria, jazarpen, bereizkeria, bazterkeria, estigmatizazio eta aurreiritzi horiek abusuak jasaten dituzten pertsonen segurtasuna eta duintasuna kaltetzen dutenez, beren autoestimua eta komunitate baten kide direlako sentimendua ahul lezaketelako eta, askotan, beren nortasuna ezkutatu nahiz ezabatzera eta beldurraren menpe eta ikusezintasunean bizitzera eramaten dituelako;

● **Jabeturik** historikoki, pertsonek giza eskubideen urratze hori jasan dutela lesbiana zein homosexual izateagatik edota horrela hautemanak izan direlako, sexu bereko pertsonekin adosturiko sexu jokaerengatik nahiz transexual, transgenero edo intersex izateagatik edota horrela hautemanak izan direlako edo, zenbait gizartetan, sexu orientazioaren nahiz genero identitatearen arabera definitutako talde sozialetako kide direlako;

● **Ulerturik** "sexu orientazioa" dela norbanakoak bere generokoak diren pertsonenganako edo ez direnenganako, nahiz genero bat baino gehiagokoenganako erakarpen emozional, afektibo eta sexual sakona sentitzeko gaitasuna, bai eta pertsona horiekin harreman estuak eta sexualak izateko gaitasuna ere.

● **Ulerturik** "genero identitatea" dela norberak generoaz duen barne bizipena, bakoitzak sakonean sentitzen duen moduan –eta hori bat etor daitekeela, ala ez, jaiotzazko sexuarekin–, eta bizipen horren barne daudela gorputzaren bizipen pertsonala (batzuetan

itxura edota gorputz funtzioak aldaraztera ere irits daiteke mediku, kirurgi nahiz bestelako bitartekoak baliatuz, betiere aukera hori nahita egin denean), bai eta bestelako genero adierazpenak ere, hala nola janzkera, hizketa modua eta jokamoldeak;

● **Ikusirik** giza eskubideen nazioarteko legeriak dioela pertsonak orok duela –sexu orientazioa nahiz genero identitatea zein den ere– giza eskubide guztiak osorik izateko eskubidea; giza eskubideen egungo aplikazioak sexu orientazio eta genero identitate desberdinetako pertsonen egoera eta esperientziak kontuan hartu beharko lituzkeela; umeei dagozkien ekintza guztietan, ardura behinenetako bat umearen interes gorena izango dela, eta iritzi propioa izateko egoeran den umeak, berari eragiten dioten gai guztietan, iritzia askatasunez adierazteko eskubidea duela, eta iritzi horiek kontuan hartu behar direla adinaren eta heldutasunaren arabera;

● **Ikusirik** giza eskubideen nazioarteko legeriak guztiz debekatzen duela bereizkeria oro giza eskubide, eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialei dagokienez; sexu eskubideei, sexu orientazioari eta genero identitateari zor zaion errespetua ezinbestekoa dela gizon eta emakumeen arteko berdintasuna gauza dadin, eta estatuek neurri egokiak hartu behar dituztela sexuetako edozeinen nagusitasunean edo gutxiagotasunean ez ezik gizon eta emakumeentzako rol estereotipatuetan ere oinarritutako aurreiritzi eta praktikak ezabatzeko; eta, era berean, ikusirik nazioarteko erkidegoak onartu egin duela pertsonek askatasunez eta erantzukizunez erabakiak hartzeko eskubidea dutela sexualitatearekin –baita sexu eta ugalketa osasunarekin ere– zerikusia duten gaietan, inolako hertsadurarik, bereizkeriarik eta indarkeriarik jasan gabe;

● **Onarturik** balio esanguratsua duela giza eskubideen nazioarteko legeria sexu orientazio eta genero identitate desberdinetako pertsonen bizitzei eta esperientziei nola aplikatzen zaien era sistematikoan formulatzeak;

● **Onarturik** formulazio horrek giza eskubideen nazioarteko legeriaren egungo egoeran oinarritua behar duela, eta aldizka berrikusi beharra izango dela, kontuan hartu beharko baitira legeria horien garapenak bai eta horiek sexu orientazio eta genero identitate anitzetako pertsonen bizitza eta esperientzia partikularretara, denboran zehar eta eskualde eta nazio desberdinetan, nola aplikatzen diren.

Indonesiako Yogyakartan, 2006ko azaroaren 6tik 9ra adituok egindako batzarraren ostean, honako printzipiook erabaki genituen:

1 Printzipioa. Pertsona orok du giza eskubideak izateko eskubidea

Gizaki guztiak sortzen dira libre, eta jaiotzez dira berdinak duintasunean eta eskubideetan. Sexu orientazio eta genero identitate guztietako gizakiek giza eskubide guztiak izateko eskubidea dute.

Estatuek:

A. Giza eskubide guztien unibertsaltasun, osagarritasun, elkarmendekotasun eta banaezintasun printzipioak ezarriko dituzte beren konstituzio nazionaletan nahiz beste legeria garrantzitsuetan, eta pertsona guztiek giza eskubideak praktikan izango dituztela bermatuko dute;

B. Legeria oro aldaraziko dute, baita zigor zuzenbidea ere, ziurtatzeko bat datorrela guztiek giza eskubide guztiak izatearekin;

C. Heziketa eta sentsibilizazio programei ekingo diete, bakoitzaren sexu orientazioa nahiz genero identitatea gorabehera, pertsona guztiek giza eskubide guztiak izan ditzaten;

D. Ikuspegi askotarikoa txertatuko dute beren politiketan eta erabakietan; giza identitatearen alderdi guztien, sexu orientazioa eta genero identitatea barne, osagarritasuna eta banaezintasuna onartu eta berretsiko duen ikuspegia.

2 Printzipioa. Berdintasunerako eskubidea eta diskriminatua ez izatekoa

Pertsona guztiek dute giza eskubide guztiak izateko eskubidea, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe. Pertsona guztiek dute legearen aurrean berdinak izateko eskubidea, hala nola lege-babes bera izatekoa, aipatutako bereizkerietako bat ere jasan gabe, beste giza eskubide bati eragin ala eragin ez. Legeak mota horretako bereizkeria oro debekatuko du, eta pertsona guztiei babes eraginkor bera eskainiko die, mota horretako edozein bereizkeria moduren aurrean.

Sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriatzat jotzen da sexu orientazioan nahiz genero identitatean oinarritutako bereizketa, baztertze, murrizketa nahiz hobespen oro, horren xedea edo ondorioa

baldin bada giza eskubideetan eta funtsezko eskubideetan legeak berdin ez tratatzea edo babes bera ez eskaintzea. Sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeria beste bereizkeria mota batzuek –hala nola, generoak, arrazak, adinak, erlijioak, elbarritasunak, osasun egoerak eta baldintza ekonomikoek eragindakoa– larriagotu dezakete, eta, eskuarki, larriagotu egiten dute.

Estatuek:

A. Oraindik egin ez badute, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik ezaren eta berdintasunaren printzipioak berretsiko dituzte –baita emendakin eta interpretazio bidez– beren konstituzio nazionaletan edo beste legeria garrantzitsuetan, eta printzipioak eraginkorki beteko direla bermatuko dute;

B. Sexu bereko pertsonek adosturik egindako sexu jarduerak –onespen hori baliogarritzat jotzeko adina bete baldin badute– debekatzen dituzten eta, izatez, debekatzeko erabiliak diren zigor nahiz beste mota juridikoetako xedapen guztiak indargabetu egingo dituzte; eta onartze-adina sexu berekoentzat eta sexu desberdinetakoentzat bat bera izango dela bermatuko dute;

C. Alor publiko eta pribatuetan, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriak debekatu eta deuseztatzeko egokiak diren lege nahiz bestelako neurri guztiak hartuko dituzte;

D. Sexu orientazio eta genero identitate guztietako pertsonak behar bezala gara daitezen bermatzeko egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, talde edo pertsona horiek giza eskubideak besteen baldintza beretan izango dituztela ziurtatu ahal izateko. Neurri horiek ez dira baztertzailetzat joko;

E. Sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriari emandako erantzun guztietan, kontuan hartuko dute zein modutan nahasten den bereizkeria hori beste bereizkeria modu batzuekin;

F. Neurri egoki guztiak hartuko dituzte –baita hezkuntza eta gaikuntza programak burutuko ere–, edozein sexu orientazio, genero identitate nahiz genero adierazpen besteak baino gutxiago edo gehiago delako ideia oinarri duten aurreiritzizko nahiz bereizkeriazko jarrera eta praktikak deuseztatuko direla ziurtatzeko.

3 Printzipioa. Nortasun juridikoa onartua izateko eskubidea

Gizaki orok du, edonon, bere nortasun juridikoa onar diezaioten eskubidea. Sexu orientazio nahiz genero identitate guztietako pertsonek gaitasun juridikoa izango dute bizitzaren alderdi guztietan. Norberak aukeratu duen sexu orientazioa nahiz genero identitatea funtsezkoa da bere nortasunerako, eta hura du bere autodeterminaziorako, duintasunerako eta askatasunerako oinarrizko alderdietako bat. Inork ez du nahitaez mediku-prozeduretara (ezta sexua berrezartzeko kirurgiara, antzutzekora nahiz hormona terapiara ere) makurtu beharko bere genero identitatea legez onar diezaioten. Ezingo da inolako egoerarik baliatu –hala nola, ezkontza, amatasuna edo aitatasuna– inoren genero identitatea legez onartua izan dadin eragozteko. Ez zaio inori presiorik eragingo bere sexu orientazioa nahiz genero identitatea ezkutatu, deuseztatu edo uka dezan.

Estatuek:

A. Gai zibiletan, pertsona orok gaitasun juridikoa izango duela bermatuko dute, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe, bai eta aipatu gaitasuna betetzeko aukera izango dutela ere, besteak beste –guztien baldintza beretan–: hitzarmenak izenpetzeko eskubidea, bere jabetzapeko ondasunak administratu, eduki, eskuratu (baita oinordekotza bidez denean ere), kontrolatu eta gozatzekoa eta horien gaineko erabakiak hartzekoa;

B. Nork bere genero identitatea definitzeko eskubidea bete-betean errespetatzeko eta legez onartzeko behar diren lege-, administrazio- nahiz beste edozein motatako neurri guztiak hartuko dituzte;

C. Lege-, administrazio- nahiz beste edozein motatako neurri guztiak hartuko dizute, pertsona baten generoa nahiz sexua adierazten duten estatuak emandako identitate agiri guztietan –baita jaiotze egiaztagiri, pasaporte, hauteskunde erregistro eta bestelako agirietan ere– bakoitzak bere buruarentzat definitutako genero identitate sakona isla dadin prozedurak ezartzeko;

D. Aipatu prozedurak eraginkorrak, zuzenak eta ez diskriminatzaileak izango direla bermatuko dute, baita dagokionaren duintasuna eta pribatutasuna aintzakotzat hartuko direla ere;

E. Identitate agirietan egindako aldaketak onartuak izango direla ziurtatuko dute, legeek nahiz politikek pertsonen identifikazioa edo sexuaren araberako banaketa eskatzen duten testuinguru guztietan;

F. Genero trantsizio edo genero berrezarpenerako prozesua bizi duten pertsona guztiei zuzendutako gizarte laguntza eskaintzeko programa fokalizatuak abiaraziko dituzte.

4 Printzipioa. Bizitzeko eskubidea

Pertsona orok du bizitzeko eskubidea. Inori ez zaio, hautamenez, bizia kenduko, inongo ziorik –ez sexu orientazioa ezta genero identitatea ere– aitzakiatzat hartuta. Ez zaio inori heriotza zigorra ezarriko elkarrekin adosturik izandako sexu jarduerengatik –sexu jarduera onartzeko ezarritako adina betea dutenean–, ezta beren sexu orientazio edo genero identitatearengatik ere.

Estatuek:

A. Sexu jarduera adosteko ezarritako adina betea duten sexu bereko pertsonen arteko sexu jardun adostuak debekatzea xede nahiz ondorio duten delitu-figura guztiak indargabetuko dituzte, eta, xedapenak indargabetuak izan daitezen artean, zio horietan oinarriturik zigortua izan den inori ez diote sekula heriotza zigorrik ezarriko;

B. Heriotza zigorrak barkatuko dizkiete eta aske utziko dituzte sexu jarduera adosteko ezarritako adina betea izanik elkarrekin hitzarturik izandako sexu jarduerekin zerikusia duten krimenengatik exekuzio zain diren pertsona guztiei;

C. Bertan behera utziko dituzte sexu orientazio nahiz genero identitateagatik pertsonen bizitzaren kontra estatuek babestu nahiz toleratzen dituzten eraso guztiak; eraso horiek guztiak –hala funtzionario publikoek nola edozein norbanako nahiz taldek burutuak– irmotasunez ikertuko direla ziurtatuko dute, eta, froga egokiak aurkitzen diren kasuetan, arduradunen aurka karguak formalki aurkeztuko direla eta horiek epaituak eta behar bezala zigortuak izango direla.

5 Printzipioa. Norberaren segurtasunerako eskubidea

Pertsona orok du –dena delakoa haren sexu orientazioa nahiz genero identitatea– funtzionario publikoek nahiz beste edozein norbanako zein taldek burututako indarkeriazko egintza nahiz gorputzeko kalteen aurrean segurtasuna izateko eskubidea, bai eta estatuaren babesa jasotzekoa ere.

Estatuek:

A. Polizi neurriak ez ezik beharrezkoak diren bestelakoak ere hartuko dituzte sexu orientazioari eta genero identitateari loturiko indarkeria eta xaxatze era guztiei aurrea hartzeko, bai eta horien kontrako babesa emateko ere;

B. Behar diren lege-neurri guztiak hartuko dituzte, sexu orientazioa nahiz genero identitatea dela eta indarkeria, indarkeria mehatxu, indarkeria eragite eta hari loturiko

xaxatzeak gertatzen direnean zigor egokiak ezartzeko, dela pertsona bakar batek dela talde batek eraginda, eta bizitzako alor guztietan, baita senitartekoan ere;

C. Lege, administrazio nahiz bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte biktimaren sexu orientazioa nahiz genero identitatea ez daitezen indarkeria desenkusatu, zuritu edo apaltzeko balia;

D. Delako indarkeria hori irmoki ikertuko dela ziurtatuko dute, eta, froga egokiak aurkitzen diren kasuetan, arduradunen aurkako legezko karguak aurkeztuko, epaitegira eraman eta behar bezala zigortuak izango direla, bai eta, biktimei baliabide eta kalteordain egokiak – konpentsazioak barne- emango zaizkiela ere;

E. Jendarte zabalari bezala indarkeria darabilten edo erabil dezaketenei ere zuzenduriko sentsibilizazio kanpainei ekingo diete, sexu orientazioari eta genero identitateari loturiko indarkeriaren azpian diren aurreritziei aurre egiteko.

6 Printzipioa. **Pribatutasunerako eskubidea**

Pertsona orok du –haren sexu orientazioa nahiz genero identitatea gorabehera– pribatutasuna izateko eskubidea, inoren bidegabeko nahiz legez kanpoko esku-sartzeak jasan behar izan gabe, hala familiari eta bizitokiari dagokionez nola postari dagokionez, bai eta bere ohore nahiz izen onaren aurkako legez kanpoko erasoetatik babestua izateko eskubidea ere. Pribatutasun eskubideak berekin du norberaren sexu orientazioari nahiz genero identitateari buruzko informazioa agerian jartzeko nahiz ez jartzeko aukera, bai eta norberaren gorputzaren eta besteekin adostutako sexu nahiz beste ezelako harremanei dagozkien aukeraketak egitekoa ere.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz beste edozein eratako beharrezko neurriak hartuko dituzte bermatu ahal izateko pertsona orok –haren sexu orientazioa nahiz genero identitatea gorabehera– bere alor pribatua, barneko erabakiak eta giza harremanak –baita elkarrekin adosturiko sexu jarduera ere, adostu ahal izateko ezarri adina betea dutenean– inoren bidegabeko esku-sartzerik gabe garatzeko duen eskubidea;

B. Sexu jarduera adosteko ezarritako adina betea duten sexu bereko pertsonen artean elkar adosturik izandako sexu harremanak kriminalizatzen dituzten lege guztiak indargabetuko dituzte, eta onartze-adina sexu berekoentzat eta sexu desberdinetakoentzat bat bera izango dela bermatuko dute;

C. Zigor xedapenak eta aplikazio orokorreko bestelako izaera juridikoa duten xedapenak, izatez, sexu jarduera adosteko ezarritako adina betea duten sexu bereko pertsonen

artean elkar adosturik izandako sexu harremanak kriminalizatzeko balia ez daitezen bermatuko dute;

D. Genero identitatearen adierazpena –baita jantzien, mintzairaren eta keinuen bitartekoa ere– debekatu nahiz kriminalizatzen duen lege oro indargabetuko dute, bai eta genero identitatea adierazteko nork bere gorputza aldarazteko aukera ukatzen duen edozein lege ere;

E. Aske utziko dituzte behin-behingoz nahiz zigor epai batean oinarriturik espetxeratutako pertsona guztiak, baldin eta atxilotzeak sexu jarduera adosteko ezarritako adina betea duten sexu bereko pertsonek elkar adosturik izandako sexu harremanekin nahiz genero identitatearekin zerikusia badu;

F. Pertsona orok, ohiko baldintzetan, bere sexu orientazioari nahiz genero identitateari dagokion informazioa noiz, nori eta nola agertarazi erabakitzeko duen eskubidea bermatuko dute, eta aipatu informazioa edonola edo nahi ez bezala zabaltzetik babestuko dituzte pertsona guztiak, bai eta beste inork informazio hori zabaltzeko egin dezakeen mehatxutik ere.

7 Printzipioa. Hautamenez atxilotua ez izateko pertsona ororen eskubidea

Inor ez da hautamenez atxilotua nahiz arrastatua izan behar. Sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko atxilotze nahiz arrastatzea hautamenezkoa da, nahiz eta agindu judizial bat betetzeko izan edo beste edozein arrazoi izan tarteko. Berdintasunean oinarriturik, atxilotua izan den edonork du –bere sexu orientazioa nahiz genero identitatea zein den ere– atxilotzearen arrazoiak zeintzuk diren ezagutzeko eskubidea, bai eta bere aurka egin diren salaketen zer-nolakoen berri izatekoa ere. Era berean, funtzio judizialak betetzeko gaitutako funtzionario baten aurrera atzerapenik gabe eramana izateko eskubidea du, bai eta epaitegi batean errekurtsoa jartzekoa ere, atxiloketa legezkoa izan den ala ez erabaki dadin, kontuan hartu gabe delituren bat leporatzen zaion ala ez.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz beste edozein eratako beharrezko neurriak hartuko dituzte, sexu orientazioa nahiz genero identitatea ez daitezen, inongo zirkunstantziatan, atxilotuak nahiz arrastatuak izateko arrazoi izan; eta neurri horietako bat zigor zuzenbideko xedapenak ezabatzea izango da, aplikazio diskriminatzailea eragiten duen edo aurreiritzietan oinarritutako atxilotzeak bideratzen dituen modu lausoan idatzita daudenean;

B. Lege, administrazio nahiz beste edozein eratako beharrezko neurriak hartuko dituzte, atxilotuta dauden pertsona guztiek –beren sexu orientazioa nahiz genero identitatea gorabehera– eskubidea izan dezaten, berdintasuna oinarri, atxilotuak izan diren unean atxiloketa zein arrazoik eragin duen ezagutzeko eta beren aurka egindako salaketen zer-nolakoen berri izateko; eta, delituren bat leporatzen bazaie ala ez bazaie, epaile nahiz funtzio judizialak betetzeko legeak gaitu duen funtzionario baten aurrera atzerapenik gabe eramanak izatekoa, bai eta auzitegian errekurtsoa jartzekoa ere, atxilotzearen legezkotasunaren gainean erabakia har dezaten;

C. Gaitasun eta sentsibilizazio kanpainei ekingo diete, polizi agenteak eta legea betearazteaz arduratzen diren beste langileak sexu orientazioan nahiz genero identitatean oinarritutako arrastatze eta atxilotzeen bidegabekeriaren inguruan hezteko:

D. Arrastatze eta atxilotze guztien erregistro zehatzak izango dituzte eguneraturik, atxilotzea noiz, non eta zergatik izan den adierazita, eta atxilotze gune guztien ikuskatzailetza independentea bermatuko dute. Ikuskatze lan hori horretarako aginte egokia duten eta oinarrian sexu orientazioa edo genero identitatea izan lezaketen atxilotzeak antzemateko behar bezala gaiturik dauden erakundeek burutuko dute.

8 Printzipioa. Epaiketa zuzena izateko eskubidea

Pertsona orok du eskubidea epaitegi eskudun batek entzun dezan, jendaurreko audientzian, bere aurka egindako zigor izaerako ezelako salaketa egiten zaionean, legez ezarritako epaitegi independente eta inpartzialak dagozkion eskubide eta betebeharrak zuzentasunez erabaki ditzan, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko inolako aurreiritzi edo bereizkeriarik gabe.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz beste edozein eratako beharrezko neurriak hartuko dituzte, sexu orientazioan nahiz genero identitatean oinarritutako aurreiritzizko tratua debekatu eta ezabatzeko prozesu judizialaren etapa guztietan, prozedura zibil eta penaletan eta eskubideak eta betebeharrak zehazten dituzten prozedura judizial eta administratibo orotan; eta, ziurtatu ere egingo dute, parte, lekuko, defendatzaile nahiz erabaki hartzaile gisa dihardutenen sinesgarritasuna ez dadin zalantzan jarri haien sexu orientazio nahiz genero identitatearengatik;

B. Beharrezko eta arrazoizko neurri guztiak hartuko dituzte, pertsona oro sexu orientazio nahiz genero identitatearen inguruko aurreiritziek –partez nahiz erabat– eragindako salaketa penaletatik edo prozedura zibiletatik babesteko;

C. Epaile, epaitegietako langile, fiskal, abokatu eta bestelako pertsonak, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauetan eta berdintasunaren eta arau ez diskriminatzaileetan ez ezik sexu orientazio eta genero identitateari dagozkionetan ere, gaitzeko eta sentsibilizatzeko programei ekingo diete.

9 Printzipioa. Askatasunik gabe den pertsona orok gizalegezko tratua jasotzeko eskubidea

Askatasunik gabe den pertsona orok gizalegezko eta gizakiak berezkoa duen duintasunari zor zaion errespetuzko tratua izango du. Sexu orientazioa eta genero identitatea funtsekoak dira pertsona ororen duintasunerako.

Estatuek:

A. Sexu orientazioaren nahiz genero identitatearen zioz atxilotutako pertsonek are bazterkeria handiagoa jasan ez dezaten ziurtatuko dute, bai eta bortxakeria, tratu txarrak nahiz gehiegikeria fisiko, mental edo sexualak jasan ez ditzaten ere;

B. Atxilotutakoak haien beharren neurriko mediku arretaz eta aholkularitza egokiaz hornituko dituzte, beren sexu orientazioan nahiz genero identitatean oinarritutako behar berezietako edozein kontuan hartuz –baita ugaltze osasunari, GIB/HIESari buruzko informazioa eskuratzeari eta horri dagokion terapiari, hormona terapiari edo beste edozelako terapiari nahiz generoa berresleitzeari dagozkionak ere– haiek hala nahiko balute;

C. Ahal den neurrian, askatasunik gabe diren pertsona guztiei bermatuko diete atxiloturik egongo diren tokiari buruzko erabakietan parte hartu ahal izatea, haien sexu orientazio eta genero identitaterako egokia izan dadin;

D. Askatasunik gabe diren pertsona guztientzat babes neurriak ezarriko dituzte, haien sexu orientazioarengatik, genero identitatearengatik zein genero adierazpenarengatik gehiegikeriak nahiz indarkeria erraz jaso ditzaketenean; eta neurri horiek espetxeko preso guztiek jasaten dituzten eskubide murrizpenak baino murrizpen gehiago ekar ez dezaten ziurtatuko dute, hori guztia zentzuz bidera daitekeen neurrian;

E. Bikotekidearen bisitaldiak –baimenduta dauden lekuetan– preso eta atxilotu guztientzako baldintza beretan izan daitezen ziurtatuko dute, bikotearen sexua zein den ere;

F. Atxiloketa lekuen kontrol independentea ezarriko dute, bai estatuarena bai eta gobernuz kanpoko erakundeena, sexu orientazioaren eta genero identitatearen alorrean dihardutenak barne;

G. Gaitze eta sentsibilizatze programak bideratuko dituzte, espetxeetako langileek eta atxilotze lekuetan diharduten sektore publiko zein pribatuko gainerako langileek giza eskubideetako nazioarteko arauak –bai eta berdintasunaren eta bereizketa ezaren printzipioak ere– landu ditzaten, sexu orientazioari eta genero identitateari buruzkoak barne.

10 Printzipioa. Ez torturarik, ez tratu edo zigor krudel, jasangaitz edo iraingarririk ez jasateko pertsona ororen eskubidea

Pertsona orok du ez torturarik, ez zigor nahiz tratu krudel, jasangaitz edo iraingarririk ez jasateko eskubidea, baita sexu orientazioarekin nahiz genero identitatearekin zerikusia duten arrazoiak tarteko direnean ere.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz beste edozein eratako beharrezko neurriak hartuko dituzte, biktimaren sexu orientazioaren nahiz genero identitatearen karietara torturak eta zigor edo tratu krudel, jasangaitz edo iraingarriak gauza ez daitezen, eta halako egintzak burutzera bultzaraztea eragozteko; eta. horien aurreko babesa eskainiko dute;

B. Sexu orientazioaren nahiz genero identitatearen karietara burututako tortura eta zigor edo tratu krudel, jasangaitz edo iraingarrien biktimak nortzuk diren jakiteko zentzuzko neurri guztiak hartuko dituzte, bai eta baliabide egokiak, kalte-ordainak eta ordaintzak eskainiko ere; bai eta, hala behar denean, medikuen eta psikologoen laguntza ere;

C. Horrelako egintzak burutu nahiz eragotz ditzaketen polizi agenteei, espetxeetako langileei eta sektore publiko eta pribatuetako langile guztiei zuzendutako gaitze eta sentsibilizatze programak burutuko dituzte.

11 Printzipioa. Pertsonen esplotazio eta salerosketa modu guztietatik babestuak izateko eskubidea

Pertsona orok du esplotazio eta salerosketa modu guztietatik –baita sexu esplotaziotik ere, baina horretara mugatu gabe– babestua izateko eskubidea, horien zioa sexu orientazioa nahiz genero identitate erreala edo hautemana denean. Bermatu egin behar da pertsonen salerosketa edo trafikoari aurrea hartzeko diseinatutako neurriek kontuan hartzen dituztela eraso horien aurreko ahuldadea areagotzen duten faktoreak, besteak beste, sexu orientazio nahiz genero identitate erreal edo hautemanarengatiko desberdintasun eta bereizkeriak, edo horien nahiz bestelako identitateen adierazpenarengatikoak. Aipatu neurriek bateragarri izan behar dute salerosketa arriskuan diren pertsonen giza eskubideekin.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz bestelako prebentzio eta babes neurri guztiak hartuko dituzte, sexu orientazioan nahiz genero identitate erreal edo hautemanean oinarritutako gizakien salerosketari eta esplotazio modu orori dagokionez, baita sexu esplotazioari dagokionez ere, baina horretara bakarrik mugatu gabe;

B. Bermatu egingo dute lege edo neurri horiek ez dituztela estigmatizatuko erasotzen erraz diren pertsonak, ezta haien jokabideak kriminalizatuko, ezta dituzten eragozpenak inolaz ere larriagotuko;

C. Sexu orientazio nahiz genero identitate erreal edo hautemanean oinarrituriko salerosketaren eta gizakien esplotazio modu ororen aurrean –baita sexu esplotazioaren aurrean ere, baina horretara mugatu gabe– erasotzen erraz direnen ahuldadea areagotzen duten faktoreei aurre egiteko neurriak ez ezik, lege, hezkuntza eta gizarte zerbitzu eta programak ere ezarriko dituzte, baita faktore horiek gisa honetakoak direnean ere: bazterkeria soziala, bereizkeria, senitartekoen nahiz kultur erkidegoen errefusatzea, menpekotasun finantzarioa, etxebizitzarik eza, autoestimu urrira daramaten gizartejarrera diskriminatzaileak baztertzaileak eta etxebizitza, ostatua, enplegua nahiz gizarte zerbitzuak eskuratzeko aukeretan bereizkeriaren aurkako babesik eza.

12 Printzipioa. **Lan egiteko eskubidea**

Pertsona orok du lan duina eta emankorra egiteko eskubidea, baita lan baldintza bidezkoak eta asegarriak, eta langabeziagatiko babesa izatekoa ere, sexu orientazio nahiz genero identitatearen karietarako bereizkeriarik gabe.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, sexu orientazioan zein genero identitatean oinarrituriko bereizkeria ezabatu eta debekatzeko, hala enplegu publikoan nola pribatuan, baita gaitze profesionalari, kontratatzeari, sustatzeari, lanpostutik kaleratzeari, lan baldintzei eta lansariei dagokienez ere;

B. Sexu orientazio nahiz genero identitatearen karietarako bereizkeria oro ezabatuko dute enplegua lortu eta horretan gora egiteko aukera berdinak bermatzeko zerbitzu publikoaren alor guztietan –baita gobernu zerbitzuko maila guztietan eta funtzio publikoetako enpleguetan ere, polizia eta indar armatuko zerbitzuak barne–; eta bereizkeria jarrerei aurka egiteko gaitze eta sentsibilizatze programa egokiak eskainiko dituzte.

13 Printzipioa. **Gizarte segurantza eta gizarte babeserako bestelako neurriak izateko eskubidea**

Pertsona orok du gizarte segurantza eta bestelako gizarte babes neurriak izateko eskubidea, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz bestelako prebentzio eta babes neurri guztiak hartuko dituzte, pertsona orok izan ditzan, sexu orientazio nahiz genero identitatearengatiko bereizkeriarik gabe eta besteen baldintza beretan, gizarte segurantza eta bestelako gizarte babes neurriak, baita lan onurak, amatasun nahiz aitatasunagatiko lizentzia, enplegu ezagatiko onurak, asegurua, osasunari loturiko arreta edo onurak (genero identitatearekin zerikusia duten gorputz aldarazpenak barne), gizarte gaiak estaltzen dituzten bestelako aseguruak, famili onurak, hil onurak, eta, bikote zein ezkontidearen heriotza nahiz gaixotasunagatiko laguntza-galera apaltzeko onurak ere;

B. Umeek beraien edo haien senitartekoen sexu orientazio nahiz genero identitateagatik ez dezaten bereizkeriazko traturik jasan ziurtatuko dute, hala gizarte segurantzako sisteman nola gizarte onurako edo gizarte ongizateko prestazioetan;

C. Lege, administrazio nahiz bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, pobrezia urritzeko estrategiak eta programak sexu orientazioa nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik egin gabe eskura daitezen bermatzeko;

14 Printzipioa. Bizi-maila egokia izateko eskubidea

Pertsona orok du, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe, bizi-maila egokia izateko eskubidea, eta horrek berekin du behar bezalako elikadura, edateko ura, osasun zerbitzuak eta jantzi egokiak izateko eskubidea, bai eta bizi-baldintzak etengabe hobetzekoa ere.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, sexu orientazio nahiz genero identitatearengatiko bereizkeriarik gabe eta besteren baldintza beretan, pertsona orok elikadura, edateko ura, osasun zerbitzuak eta jantzi egokiak izan ditzan.

15 Printzipioa. Etxebizitza egokia izateko eskubidea

Pertsona orok du etxebizitza egokia izateko eskubidea, eta horrek berekin du etxea utzaraztetik babestua izatekoa, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizketarik gabe.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte segurtatu ahal izateko pertsona orok izango duela modua –sexu orientazio, genero identitate nahiz ezkontza zein famili egoeragatiko bereizkeriarik gabe– etxebizitza eskuragarria, bizitzeko modukoa, iritsi-erraza, kulturalki egokia eta segurua izateko, bai eta babes-etxeak eta larrietarako bestelako bizitokiak ere;

B. Lege, administrazio nahiz bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, estatuek beraiek giza eskubideen gaietan dituzten nazioarteko betebeharrekin bateraezinak diren etxea utzarazteko aginduak betearaz daitezen debekatzeko; eta legebaliabideak bezala bestelako baliabide egoki eta eraginkorrak ere erabiltzeko modua ziurtatuko diote bizitokia nahitaez utzaraztetik babestua izateko eskubidea (birkokatua izatekoa barne, eta horrek berekin duen kalitate bereko nahiz hobeko lurra izateko eskubidea eta etxebizitza egokia izatekoa) urratu diotela edota urratuko dioten mehatxupean dela dioenari, sexu orientazio, genero identitate nahiz ezkontza edo famili egoerarengatiko bereizkeriarik gabe;

C. Lur eta etxebizitzen jabetza eta oinordekotzarako eskubide berdintasuna bermatuko dute, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe;

D. Gizarte programak ezarriko dituzte –baita laguntza ematekoak ere– etxebizitzarik ez izateko arriskua –bereziki ume eta gazteen kasuan– areagotzen duten sexu orientazio eta genero identitateari lotutako faktoreei aurre egiteko. Faktore horien artean dirateke gizarte bazterkeria, etxeko nahiz bestelako indarkeriak, bereizkeria, diru-menpekotasuna eta familiarengandiko nahiz kultur komunitateengandiko gutxiespena. Aipatu faktoreei aurre egiteaz gainera, auzotarren laguntza eta segurtasunerako ereduak sustatuko dituzte;

E. Gaitze eta sentsibilizatze programez hornituko dituzte dagozkien agentzia guztiak, behar bezalako ezaguera eta sentiberatasuna izan dezaten etxebizitzarik gabe diren edo traba sozialei aurre egin behar dieten pertsonek beren sexu orientazio nahiz genero identitatearen ondorioz dituzten beharrei dagokienez.

16 Printzipioa. **Hezkuntzarako eskubidea**

Pertsona orok du hezkuntzarako eskubidea, bere sexu orientazio nahiz genero identitateagatik inolako bereizkeriarik gabe, eta horiei zor zaien begiruneaz.

Estatuek:

A. Lege, administrazio nahiz bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte bermatzeko pertsona guztiek izango dutela hezkuntzarako aukera berbera, bai eta, hezkuntza sistemaren barruan, ikasleen, langileen zein irakasleen tratua berdintasunezkoa izango dela, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe;

B. Hezkuntza ikasle bakoitzaren nortasuna, trebetasunak eta gaitasun fisiko eta mentala ahal bezainbeste garatzera bideratua izango dela bermatuko dute, bai eta sexu orientazio eta genero identitate guztietako ikasleen beharrei erantzungo diola ere;

C. Hezkuntza giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko –baita umeen guraso eta senitarteekiko, beren kultur identitatearekiko, hizkuntza eta baloreekiko ere– errespetua finkatzera bideratua izan dadin bermatuko dute, ulermen, bake eta tolerantzia izpirituaz, sexuen arteko berdintasunaz eta sexu orientazio eta genero identitate anitzak kontuan eta aintzakotzat harturik;

D. Hezkuntza-metodoak, curriculumak eta baliabideak, besteak beste, sexu orientazioen eta genero identitateen ulermena eta errespetua areagotzeko izango direla ziurtatuko dute, barne harturik ikasleen eta haien gurasoen eta senitartekoen behar bereziak;

E. Bermatu egingo dute legeek eta politikek sexu orientazio eta genero identitate desberdinetako ikasle, langile eta irakasleei gizarte bazterkeria eta indarkeria era guztietatik –baita eskolaren esparruko jazarpen eta xaxatzeetatik ere– babesteko modu egokia eskain diezaieten;

F. Ziurtatu egingo dute aipatu bazterkeria nahiz indarkeria jasaten duten ikasleak ez direla ez bereiziak ez baztertuak izango erasoetatik baztertzearren, bai eta pertsona horien interes gorenak elkar hartuta identifikatu eta errespetatuko direla.

G. Lege, administrazio nahiz bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte ikastegietako diziplina giza duintasunarekin bat etortzeko moduan ezarriko dela bermatzeko, ikasleen sexu orientazioan, genero identitatean nahiz horien adierazpideetan oinarritutako bereizkeriarik egin gabe eta zigorrik ezarri gabe;

H. Pertsona guztiek, beren bizitzako etapa guztietan, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabeko ikasketarako aukerak eta baliabideak izan ditzaten zainduko dute, baita hezkuntza sisteman bereizkeria modu horiek jasan dituzten pertsona helduak badira ere.

17 Printzipioa. **Ahalik eta osasunik onena izateko eskubidea**

Pertsona orok du osasun fisiko eta mentalik hoberena izateko eskubidea, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe. Sexu eta ugaltze osasuna da eskubide horietako alderdi funtsezkoenetako bat.

Estatuek:

A. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte pertsona guztiek osasun fisiko eta metal hoberena izan dezaten ziurtatzeko, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe;

B. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte pertsona guztiek izan dezaten osasun etxe, produktu eta zerbitzuak –baita sexu eta ugaltze osasunarekin zerikusia dutenak ere– erabiltzeko modua, hala nola beren osasun txostenak baliatzekoa, sexu orientazio nahiz genero identitatearengatiko bereizkeriarik gabe.

C. Osasun etxe, produktu eta zerbitzuak pertsona ororen osasun egoera hobetzeko moduan diseinaturik egon daitezen ziurtatuko dute, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe; bai eta ziurtatuko ere pertsona horien beharrizanak eta berezitasunak kontuan izango dituztela, eta alderdi horiei dagozkien osasun txostenak konfidentzialtasunez erabiliko direla.

D. Sexu orientazioa nahiz genero identitatea dela medio pertsonen osasuna urritzen duten bereizkeriari, aurreiritziei eta bestelako gizarte faktoreei aurre egiteko programak garatu eta ezarriko dituzte.

E. Pertsona orok informazioa eta autonomia izan dezan bermatuko dute, sendabide eta mediku artatzearekin zerikusia duten erabakiak benetako informazioren ondoriozko baimenean oinarrituta hartu ahal ditzaten, sexu orientazio nahiz genero identitatearengatiko bereizkeriarik gabe.

F. Sexu eta ugaltze gaietan, osasun, hezkuntza, prebentzio, artatze eta sendabide programek eta zerbitzuek sexu orientazio eta genero identitateen aniztasuna aintzakotzat hartuko dituztela bermatuko dute, bai eta pertsona guztiek baldintza beretan eta bereizkeriarik gabe izango dituztela eskura;

G. Generoa berresleitzearekin zerikusia duten gorputz aldarazpenak lortu nahi dituzten pertsonei lagundu egingo diete tratamendua, arta eta laguntza aditua izan dezaten;

H. Osasun zerbitzuak ematen dituzten guztiek beren bezeroak eta haien bikoteak sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe tratatuko dituztela ziurtatuko dute, baita gertueneko ahaidetzat onartzeari dagokionez ere;

I. Osasunaren alorrean lanean dihardutenak prestatu eta gaitzeko politikak eta programak ezarriko dituzte, pertsona guztiei ahal den osasun arretarik hoberena eskain diezaieten, haietako bakoitzaren sexu orientazio eta genero identitatearekiko begirune osoaz.

18 Printzipioa. **Mediku gehiegikerietatik babestua izateko eskubidea**

Inor ez da bere sexu orientazio nahiz genero identitatearen karietara edozelako mediku- nahiz psikologia- sendabide, prozedura zein azterketa egitera behartuko, ezta osasun-etxe batean bazterturik egotera ere. Kontrakoa baieztatzen duen ezein sailkapen gorabehera, pertsonaren sexu orientazioa eta genero identitatea ez dira, berez, osasunaren nahasmen, eta, horrenbestez, ez dute mediku sendabide nahiz artarik behar, eta ez dira zertan ezabatu.

Estatuek:

A. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, oinarria sexu orientazioan nahiz genero identitatean duten mediku jardute kaltegarrien

kontrako babes osoa bermatzeko; eta jokaera bera izango dute mediku jardute kaltegarriok jokamoldearekin, itxura fisikoarekin edo generoari atxikitako arautzat jotzen direnei buruzko estereotipo kultural zein bestelakoek eraginda direnean;

B. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, inork ez diezaion ume bati atzerakorik gabeko gorputz aldaketarik eragin genero identitate jakin bat ezartzeko mediku prozeduren bitartez; salbu eta, umeak, libreki eta ondo informatuta, bere adinaren eta heldutasunaren araberako informazioa jaso ondoren, onespena ematen duenean. Beti ere, printzipio honi jarraituko zaio: umeei dagozkien ekintza guztietan, haien interes gorena lehenetsiko da;

C. Haurrak babesteko mekanismoak ezarriko dituzte, inongo umerik ez dezan mediku gehiegikeriarik jasateko arriskurik izan, eta haietara makurraraz ez dezaten;

D. Sexu orientazio eta genero identitate guztietako pertsonak babestuko dituzte etikarik gabeko edo onartu gabeko mediku prozedura nahiz ikerketetatik, baita GIB/HIESarekin zein bestelako gaixotasunen kontrako txerto, tratamendu edo mikrobizidekin zerikusia dutenekin ere;

E. Osasuna finantzatzeko xedapen eta programa guztiak berrikusi eta zuzenduko dituzte, baita garapenerako lankidetzakoak ere, gehiegikeria horiek sustatu, erraztu edo nolabait gauzatzen lagun baldin baditzakete,

F. Bermatu egingo dute mediku zein psikologia izaerako tratamendu eta aholkularitzek ez dituztela sexu orientazioa eta genero identitatea, ez inplizituki ez esplizituki, tratatu, sendatu edo ezabatu beharreko gaixotasuntzat joko.

19 Printzipioa. Iritzi eta adierazpen askatasunerako eskubidea

Pertsona orok du iritzi eta askatasunerako eskubidea, bere sexu orientazioa nahiz genero identitatea gorabehera. Horrek berekin du mintzairaren, itxura eta jokaeraren, janzkeraren, gorputz ezaugarrien, izen hautapenaren edo beste edozeren bitartez identitatea edo nortasuna adieraztea, eta, halaber, era guztietako informazioa eta ideiak –baita giza eskubideei, sexu orientazioari eta genero identitateari dagokionak ere– bilatu, jaso eta zabaltzeko askatasuna, edozein bide baliatuz eta herrialdeen mugak kontuan hartu gabe.

Estatuek:

A. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte iritzi eta adierazpen askatasuna erabatekoa izango dela bermatzeko, beti ere beste pertsonen eskubideak eta askatasuna zainduz, eta sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko

bereizkeriarik gabe. Askatasun horrek bere baitan hartzen ditu sexu orientazioari eta genero identitateari dagozkion informazioa eta ideiak jaso eta komunikatzeko egintzak, legezko eskubideen sustapena eta defentsa, materialen argitalpena, hitzaldiak antolatzea edo haietan parte hartzea, bai eta sexu harreman seguruei buruzko ezagutzak hedatzea eta eskuratzea ere;

B. Estatuak araututako komunikabideen produkzioa bezala antolakuntza ere, sexu orientazioarekin eta genero identitatearekin zerikusia duten gaietan, anitza eta bereizkeriarik gabea izan dadin ziurtatuko dute, bai eta erakunde horiek ez dezaten sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik egin langileak kontratatzean eta langileen sustapen politiketan;

C. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte identitatea nahiz nortasuna adierazteko eskubidea erabatekoa dela ziurtatzeko, baita mintzairaren, itxura eta jokaeraren, janzkeraren, gorputz ezaugarrien, izen hautaketaren edo beste edozein bitarteko baliatuz egiten denean ere.

D. Ziurtatu egingo dute ordena publikoaren, moraltasun publikoaren, osasun publikoaren eta segurtasun publikoaren nozioak ez direla baliatuko sexu orientazio nahiz genero identitate anitzak berresten dituen iritzi eta adierazpen askatasuna bereizkeriaz murrizteko;

E. Iritzi eta adierazpen askatasunak pertsonen eskubideak eta askatasunak –horien sexu orientazioen eta genero identitateen aniztasun osoa kontuan hartuta–, urra ez ditzan zainduko dute;

F. Pertsona orori bermatuko diote, haren sexu orientazioa nahiz genero identitatea zein den ere, informazioa eta ideiak guztien baldintza beretan eskuratu ahal izatea, bai eta jendaurreko eztabaidetan parte hartu ahal izatea ere.

20 Printzipioa. **Bakean batzartu eta elkartzeko askatasunerako eskubidea**

Pertsona orok du bakean batzartu eta elkartzeko eskubidea, baita manifestazio baketsuak egiteko denean ere, haren sexu orientazioa nahiz genero identitatea gorabehera. Pertsonek sexu orientazioan nahiz genero identitatean oinarritutako elkarteak sor eta aintzat harraraz ditzakete, bereizkeriarik gabe, baita, halaber, sexu orientazio eta genero identitate desberdinetako pertsonei informazioa emateko edo haiei buruzkoa banatzeko elkarteak ez ezik pertsona horien arteko komunikazioari laguntzen diotenak eta beren eskubideen alde dihardutenak ere.

Estatuek:

A. Legegintza, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, sexu orientazioari eta genero identitateari loturiko gaien inguruan bakean antolatu, elkartu, batzartu eta defendatzeko eskubideak ez ezik elkarte eta talde horientzako legezko onarpena lortzeko eskubidea ere ziurtatzeko, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe;

B. Bereziki bermatuko dute ordena publikoaren, moraltasun publikoaren, osasun publikoaren, eta segurtasun publikoaren nozioak ez daitezen erabili bakean batzartu eta elkartzeko eskubideak ezertan ere murrizteko, aipatu eskubide baliatze horrek sexu orientazioen eta genero identitateen aniztasuna berresten duela argudiaturik;

C. Ez dute inolaz ere eragotziko bakean batzartu eta elkartzeko eskubidea baliatzea, sexu orientazioarekin nahiz genero identitatearekin zerikusia duten zioak tartean direnean; eta halako eskubideak baliatzen dituzten pertsonei, indarkeriaren eta xaxatzearen aurkako polizi babes egokia eta bestelako babes fisikoak ziurtatuko dizkiete;

D. Legea betearazteaz arduratzen diren agintariei eta egoki iritzitako bestelako funtzionarioei zuzendutako gaitze eta sentsibilizatze programak bideratuko dituzte, aipatu babesa eskaintzeko gauza izan daitezen;

E. Borondatezko elkarte eta taldeei buruzko informazioa zabaltzeari dagozkion arauek, praktikan, ez dezaten bereizkeriazko eraginik izan ziurtatuko dute, ez sexu orientazioarekin nahiz genero identitatearekin zerikusia duten gaiei heltzen dieten elkarte zein taldeengan ezta elkartekide zein taldekideengan ere.

21 Printzipioa. Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna izateko eskubidea

Pertsona orok du pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna izateko eskubidea, sexu orientazioa nahiz genero identitatea zein den ere. Estatuak ezin du eskubide horietara jo legearengandik babes bera izateko eskubidea ukatzen duten edota sexu orientazioaren nahiz genero identitatearen karietara diskriminatzen duten lege, politika edo praktikak justifikatzeko.

Estatuek:

A. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte pertsona guztiei bermatzeko, sexu orientazioa nahiz genero identitatea zein den ere, erlijiozko nahiz erlijiozko ez diren sinesmenak izan eta bakarka nahiz taldean praktikatzeko du-

ten eskubidea. Ziurtatu ere egingo dute ez dela sinesmenetan esku-sartzerik izango eta ez zaiola inori sinesmenik ezarraraziko ezta horretara behartuko ere;

B. Ardura hartuko dute sexu orientazioarekin nahiz genero identitatearekin zerikusia duten gaiei dagozkien iritzi, uste sendo eta sinesmen desberdinak ez daitezen giza eskubideekin bateraezin suertatzeko moduan adierazi, praktikatu eta sustatu.

22 Printzipioa. Aske mugitzeko eskubidea

Estatu batean legalki dagoen pertsona orok du estatu horren barruan aske mugitzeko eta bertan egoitza aukeratzeko eskubidea, haren sexu orientazioa nahiz genero identitatea gorabehera. Sexu orientazioa eta genero identitatea ezingo dira sekula argudio izan inori estatu batera sartzen ez uzteko ala sarrera baldintzatzeko, ez eta estatu horretatik irtenarazteko ala bertara itzularazteko, baita pertsona estatu horretako herritar denean ere.

Estatuek:

A. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, mugitzeko eta egoitza aukeratzeko eskubidea bermatzen dela ziurtatzeko, pertsonen sexu orientazioa eta genero identitatea zein den ere.

23 Printzipioa. Asiloa lortzeko eskubidea

Pertsona orok du beste herrialde batean asiloa eskatu eta lortzeko eskubidea, jazarpen egoeran baldin bada, baita jazarpenak sexu orientazioarekin nahiz genero identitaterekin zerikusia duenean ere. Estatu batek ezingo du inor kanporatu, itzularazi edo estraditatu beste inongo estatutara, baldin eta pertsona horrek arrazoiz susmatzen badu estatu hartan sexu orientazio nahiz genero identitatearen karietara tortura, jazarpena edo beste edozein zigor zein tratu krudel, jasangaitz edo iraingarri jasan lezakeela.

Estatuek:

A. Legeak berrikusi, zuzendu eta aldarrikatuko dituzte, bermatzeko sexu orientazioaren nahiz genero identitatearen karietarako jazarpena jasateko arrazoizko beldurra onartua izan dadin errefuxiatu eta asilo egoera onartzeko oinarritzat;

B. Behar bezala bermatuko dute inolako politika nahiz praktikak ez dezan asilo eskatzailea diskrimina, haren sexu orientazio nahiz genero identitatearengatik.

C. Behar bezala bermatuko dute inor ez dezaten beste inongo estatutara kanporatu, itzularazi nahiz estraditatu, baldin eta pertsona horrek arrazoiz susmatzen badu estatu hartan sexu orientazio nahiz genero identitatearen karietara, tortura, jazarpena edo beste edozein zigor zein tratu krudel, jasangaitz edo iraingarri jasan lezakeela.

24 Printzipioa. Familia osatzeko eskubidea

Pertsona orok du familia osatzeko eskubidea, haren sexu orientazioa nahiz genero identitatea gorabehera. Familia eratzeko modu ugari dago. Familia bat bera ere ez da diskriminatuko, kideetako edozeinen sexu orientazioa nahiz genero identitatea aitzakiatzat hartuta.

Estatuek:

A. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, pertsona guztiek, sexu orientazioa nahiz genero identitatea zein den ere, familia osatzeko duten eskubidea ziurtatzeko, baita familia adopzioaren nahiz lagundutako ugalketaren bitartez eratzen bada ere (emaile bidezko intseminazioa barne);

B. Legeek eta politikek familia eren aniztasuna onar dezaten zainduko dute, baita ezkontzak edo ondorengotzak definitutako familiak ez direnak ere; eta lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte familietako bat bere ere ez dadin diskriminatua izan edozeinen sexu orientazioagatik nahiz genero identitateagatik. Ez dute bereizkeriarik jasango, halaber, gizarte ongizateari ez ezik familiari, enpleguari eta immigrazioari loturiko bestelako onurei dagokienez ere.

C. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, umeei eragiten dieten neurri edo erabaki guztietan gizarte ongizateko instituzio publiko zein pribatuek, epaitegiek eta administrazioko agintariek nahiz legegintzako organoek umearen interes gorena izan dezaten ardurarik behinena, eta umearen sexu orientazioa nahiz genero identitatea edota familiako edozein kiderena nahiz beste pertsona batena ez dadin interes goren horrekin bateraezintzat jo;

D. Umeei dagozkien neurri edo erabaki guztietan, iritzi propioa izan dezakeen egoeran den neskak ala mutilak bere iritziak askatasun osoz adierazteko eskubidea balia dezan

zainduko dute, bai eta iritzi horiek umearen adin eta heldutasunaren arabera kontuan hartuak izan daitezen ere;

E. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, sexu berekoen arteko ezkontza nahiz lotura erregistratuak onartzen dituzten estatuetan berma dezaten sexu bereko bikoteek nahiz lotura erregistratua dutenek, ezkondurik nahiz lotura erregistratua duten sexu desberdineko pertsonei aitortzen zaien ezein eskubide, pribilegio, betebehar nahiz onura, baldintza beretan izango dutela eskura;

F. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, ezkondurik gabeko sexu bereko bikoteek, ezkondurik gabeko sexu desberdineko bikoteei aitortzen zaien eskubide, pribilegio, betebehar nahiz onura, baldintza beretan izango dutela eskura;

G. Bermatu egingo dute ezkontza zein legeak onartutako bestelako loturak bakarrik gauzatuko direla ezkontza zein bestelako lotura eratuko duten pertsona bien onarpen aske osoaz.

25 Printzipioa. Bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea

Herritar diren pertsona guztiek izango dute gai publikoen gidaritzan parte hartzeko eskubidea bai eta hautapen bidezko karguetara aurkeztekoa, hala nola bere ongizateari eragiten dioten politikak gauzatzen parte hartzekoa eta, ororen baldintza beretan, funtzionario publikoen maila guztietara eta funtzio publikoetako enpleguetara –poliziakoak eta indar armatukoak barne– sartzekoa, sexu orientazioagatiko nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe.

Estatuek:

A. Legeak berrikusi, zuzendu eta aldarrikatuko dituzte bizitza eta gai publiko eta politikoetan –bai eta gobernuek eskaintzen dituzten zerbitzuetako maila guztietan eta funtzio publikoko enpleguetan ere (polizia eta indar armatuetakoak barne)– parte hartzeko eskubide erabatekoa ziurtatzeko, sexu orientazioagatiko nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe, eta alderdi horietan pertsona bakoitzak duen berezitasunari zor zaion errespetu osoaz;

B. Neurri egoki guztiak hartuko dituzte, bide publikoan parte hartzea eragotz nahiz murritz dezaketen sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko estereotipo eta aurreiritziak ezabatzeko;

C. Pertsona guztiek beren ongizateari eragiten dioten politikak gauzatzen parte hartzeko duten eskubidea bermatuko dute, sexu orientazioan eta genero identitatean oinarritutako bereizkeriarik gabe, eta horiek bete-betean aintzakotzat hartuz.

26 Printzipioa. Kultur bizitzan parte hartzeko eskubidea

Pertsona orok du, haren sexu orientazioa nahiz genero identitatea zein den ere, kultur bizitzan askatasunez parte hartzeko eskubidea eta sexu orientazio eta genero identitate desberdinak, kulturan parte hartuz, adieraztekoa.

Estatuek:

A. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, pertsona orori kultur bizitzan parte hartzeko aukerak ziurtatzeko, sexu orientazioan eta genero identitatean oinarritutako bereizkeriarik gabe, eta horiek bete-betean aintzakotzat hartuz.

B. Elkarrizketa eta elkarrenganako begirunea sustatuko dituzte estatuaren barruan diren kultur taldeen artean, bai eta, halaber, sexu orientazioarekin eta genero identitatearekin zerikusia duten gaietan iritzi desberdinak dituzten taldeen artean ere, printzipiootan aipatzen diren giza eskubideei zor zaien errespetua kontuan hartuz.

27 Printzipioa. Giza eskubideak sustatzeko eskubidea

Pertsona orok du, bakarrik nahiz beste batzuekin elkarturik, giza eskubideak babestu eta gauzatzeko eskubidea, hala nazio mailan nola nazioartekoan, sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriarik gabe. Horrek barne hartzen ditu sexu orientazio eta genero identitate desberdinetako pertsonen eskubideak sustatu eta babestera bideratutako jarduerak bezala, giza eskubideekin zerikusia duten arau berriak garatu eta eztabaidatzeko eta haiek onartuak izan daitezen lan egiteko eskubidea ere.

Estatuek:

A. Lege, administrazio eta bestelako beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte giza eskubideak –baita sexu orientazio eta genero identitateari dagozkionak ere– sustatu eta gauzatzeko xedez sor litezkeen jardueretarako baldintza egokiak ziurtatzeko;

B. Sexu orientazioarekin eta genero identitatearekin zerikusia duten gaietan lanean diharduten giza eskubideen defendatzaileen aurkako ekintzei nahiz kanpainei aurre egiteko neurri egokiak hartuko dituzte, baita giza eskubideen aldeko burrukan ari direnen kontra, haien sexu orientazioak eta genero identitateak argudiatuz, abiatzen direnei aurre egitekoak ere;

C. Giza eskubideen defendatzaileak –beren sexu orientazioa nahiz genero identitatea eta defendatzen dituzten eskubideak zein diren ere– nazio eta nazioarteko giza eskubideen erakunde eta organoetan aritu, parte hartu eta haiekin komunikatu ahal izatea zainduko dute, bereizkeriak eta eragozpenik gabe;

D. Sexu orientazioarekin eta genero identitatearekin zerikusia duten gaietan diharduten giza eskubideen defendatzaileen babesa bermatuko dute, giza eskubideen aldeko euren lanaren karietara estatuak nahiz estatukoak ez diren eragileek bultzatutako indarkeria, mehatxu, errepresalia, egitatezko nahiz zuzenbideko bereizkeria eta presio guztietatik zaintze aldera. Beste edozein gaitan lanean diharduten giza eskubideen defendatzaileei bermatu beharko liekete beren sexu orientazioa nahiz genero identitatea oinarri duten halako ekintzetatik era berean babestuko dituztela.

E. Sexu orientazio eta genero identitate desberdinetako pertsonen giza eskubideak sustatu eta babesten dituzten erakundeen onarpena eta akreditazioa sustatuko dute, hala nazio mailan nola nazioartean.

28 Printzipioa. **Baliabideak eskuratu eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea**

Giza eskubideak –baita sexu orientazioari nahiz genero identitateari dagozkionak ere– urratu dizkioten biktima orok du baliabide eraginkor, egoki eta bidezkoetarako eskubidea. Sexu orientazio eta genero identitate desberdinetako pertsonei kalte-ordainak emateko edota haien behar bezalako garapena ziurtatzeko asmoz hartutako neurriak funtsezkoak dira baliabideak eskuratu eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea eraginkorra izango bada.

Estatuek:

A. Beharrezko prozedura juridikoak ezarriko dituzte, baita legeak eta politikak berrikusita ere, sexu orientazio nahiz genero identitateagatik giza eskubideak urratu dizkieten biktimek erabateko ordaina izan dezaten, dela lehengoratze, kalte-ordain, birgaitze edo asebetetze bidez, dela urraketa berriro gertatuko ez delako bermeen bidez edo/eta beste edozein bide egokiren bitartez;

B. Ordainak modu aproposean bete eta ezarriko direla bermatuko dute;

C. Ordainak eta kalte-ordainak eman ahal izateko behar diren instituzioak eta arau eraginkorrak sortuko direla ziurtatuko dute; horrezaz gainera, hango langileak gaituko dituzte, sexu orientazioan eta genero identitatean oinarritutako giza eskubideak urratzeari dagokion guztian;

D. Pertsona orok ordainak eta kalte-ordainak lortzeko prozesuei buruzko beharrezko informazio osoa eskura dezan zainduko dute.

E. Ordaina lortzeko kostuak ordaintzerik ez dutenei laguntza finantzarioa helaraziko zaiela eta hori lortzea eragotz dezakeen ezein traba –finantzarioa nahiz beste edozein eratakoa– deuseztatua izango dela ziurtatuko dute.

F. Gaitze eta sentsibilizatze programak ziurtatuko dituzte –hezkuntza publikoko maila guztietako irakasle eta ikasleei, elkargoei zein giza eskubideen urratzaile izan litezkeenei zuzendutako neurriak barne– giza eskubideei buruzko nazioarteko arauekiko begirunea sustatze aldera, Printzipio hauekin bat egindik, eta sexu orientazio nahiz genero identitateagatiko bereizkeriazko jarrerak indargabetzeko.

29 Printzipioa. Erantzukizuna

Giza eskubideak —Printzipio hauetan aipatzen diren eskubideak barne— urratu dizkioten pertsona orok du eskubidea, urraketaren egileei beren gain harraraz dakien ekintza horien larritasunaren araberako erantzukizuna —berdin dio zuzenean jardun duten ala zeharka; funtzionario publikoak diren ala ez—. Ez da zigorgabetasunik izango sexu orientazioarekin eta genero identitatearekin loturiko giza eskubideak urratzen dituen inorentzat.

Estatuek:

A. Prozedura penal, zibil, administratibo zein bestelako motakoak ezarriko dituzte, hala nola zaintze mekanismo egoki, ulergarri eta eraginkorrak, ziurtatu ahal izateko sexu orientazioaren eta genero identitatearen gaineko giza eskubideak urratzen dituztenak urraketa horien erantzule izango direla;

B. Biktimaren sexu orientazio edo genero identitate errealaren edo hautemanaren aurka eginiko delituen –Printzipio hauetan jasotzen direnak barne– salaketak azkar eta zorrotz ikertuko direla bermatuko dute, bai eta, delitua egin delako froga egokirik aurkituz gero, erantzuleei kargu hartuko zaiela, auzitara eramango direla eta behar den bezala zigortuko direla;

C. Legeen eta politiken erredakzioa eta aplikazioa zaintzeaz arduratuko diren aparteko erakunde eta prozedurak sortuko dituzte, sexu orientazioaren edo genero identitatearekin loturiko diskriminazioa deuseztatuko dela ziurtatzeko;

D. Sexu orientazioa edo genero identitatea oinarri izanik, giza eskubideak urratu dituztenen aurkako prozesuak abiarazteko oztopo den edozer ezabatuko dute.

Gomendio gehigarriak

Gizartea eta nazioarteko komunitatea osatzen duten pertsona guztiek erantzukizuna dute giza eskubideak bermatzeari dagokion guztian. Beraz, gomendio hauek egiten ditugu:

A. Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen goi komisarioak Printzipio hauek atxiki ditzala, mundu guztian ezar daitezen eragin dezala eta txerta ditzala Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoaren eginkizunetan, landa lan gisa bada ere;

B. Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Kontseiluak Printzipio hauek atxiki ditzala eta benetako urraketatzat jo ditzala sexu orientazioari edo genero identitateari loturiko giza eskubideen urraketak, helburu izanik estatuek Printzipio hauek beteko dituztela bultzatzea;

C. Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Prozedura Bereziek aintzat har ditzatela sexu orientazioari edo genero identitateari loturiko giza eskubideen urraketak eta bete ditzatela Printzipio hauek beren eginkizunetan;

D. Nazio Batuen Erakundearen Ekonomia eta *Gizarte Kontseiluak, 1996/31 Ebazpenaren* arabera, aintzat hartu eta akreditatu ditzala sexu orientazio edo genero identitate guztietako pertsonen giza eskubideak bultzatu eta babestea helburu duten gobernuz kanpoko erakundeak;

E. Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen gaineko Itunen Zaintza Organoek kemen osoz har ditzatela kontuan Printzipio hauek beren aginduak betearaztean, beren jurisprudentzian eta estatu txostenak aztertzerakoan, eta, hala komeni balitz, sor ditzatela Ohar Orokorrak, edo beste interpretazio testu batzuk, giza eskubideen nazioarteko legeria sexu orientazio edo genero identitate jakin bat dutenei aplikatzeri dagokionez;

F. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Nazio Batuen Erakundearen HIESaren gaineko Programa Bateratuak sexu orientazio edo genero identitate jakin bat duten pertsonentzat egokiak izan daitezkeen zerbitzu prestazioei eta osasun arretari buruzko ildoak gara ditzala, haien eskubideekiko eta duintasunarekiko begirune osoa bermatuz;

G. Nazio Batuen Erakundearen Errefuxiatuen goi komisarioak Printzipio hauek txerta ditzala sexu orientazioagatik edo genero identitateagatik jazarpena jasaten duten –edo jazarpena jasaten ari direlako kezka arrazoizkoak dituzten– pertsonak babesteko ahaleginean, eta berma dezala inork ere ez duela bereizkeriarik bizi izango, sexu orientazioa edo genero identitatea zeinahi dela ere, giza laguntza edo bestelako zerbitzuak jasotzeri dagokionez, ezta errefuxiatu izaera onartzeari dagokionez ere;

H. Giza eskubideekiko ardura erakusten duten gobernu arteko eskualdeko eta azpieskualdeko erakundeek, hala nola giza eskubideetako eskualdeko erakundeek, konpromisoa har dezatela Printzipio hauen sustapena funtsezko osagarria izan dadin giza eskubideen inguruko beren aginduak betearazteko mekanismo, prozedura eta gainerako akordio eta ekimenetan;

I. Giza eskubideen eskualdeko auzitegiek sexu orientazioari eta genero identitateari loturik garatzen duten jurisprudentzian integra ditzatela, jarraiki, lehen aipatu Printzipioak, giza eskubideen gaineko itunak interpretatzen dituzten neurrian egokiak baitira;

J. Nazio, eskualde eta nazioarte mailan giza eskubideen inguruan diharduten gobernuz kanpoko erakundeek bultza dezatela Printzipio hauekiko begirunea beren berariazko eginkizunetan;

K. Gizaldeko erakundeek txerta ditzatela Printzipio hauek beren ekintza humanitarioetan edo sorospen ekintzetan, eta laguntzeko edo zerbitzu bat eskaintzeko orduan ez dezatela inor ere diskriminatu haren sexu orientazio edo genero identitatea dela eta;

L. Giza eskubideen nazio erakundeek bultza dezatela eragile estatalek nahiz ez estatalek Printzipio hauei zor dieten begirunea, eta txerta ditzatela beren lanean sexu orientazio nahiz genero identitate guztietako pertsonen giza eskubideen sustapena eta babesa;

M. Erakunde profesionalek, izan medikuntza sektorekoak, justizia penal edo zibilekoak zein hezkuntzakoak, berrazter ditzatela beren praktika eta ildoak, Printzipio hauek kemen osoz bultzatuko dituztela bermatze aldera;

N. Xede komertzialak dituzten erakundeek onar dezatela beren egitekoaren garrantzia Printzipio hauei zor zaien begirunea betetze aldera, bai beren langileen artean bai eta nazio zein nazioarte mailan, eta jardun dezatela, betiere, egitekoaren garrantziaren arabera;

O. Hedabideek bazter dezatela estereotipoen erabilera sexu orientazioari eta genero identitateari dagokienez, bultza dezatela tolerantzia eta onespena pertsonen sexu orientazio eta genero identitateen dibertsitatearekiko, eta ahalegin daitezela jendea gai hauekin sentikor izan dadin;

P. Diruz laguntzen duten gobernuko agentziek nahiz agentzia pribatuek diru laguntza eskain diezaietela gobernuz kanpoko erakundeei nahiz bestelakoei, sexu orientazio eta genero identitate guztietako pertsonen giza eskubideak sustatzeko eta babesteko.

Printzipio eta gomendio hauek giza eskubideen nazioarteko legeria sexu orientazio eta genero identitate guztietako pertsonen bizitza eta bizipenei nola aplikatu jasotzen dute, eta hemen adierazten den ezerk ere ez du eragingo lege edo arau nazioartekoek, eskualdekoek zein nazionalek pertsona horiei aitortzen dizkieten eskubide eta oinarrizko askatasunak murriztu edo mugatzeko moduko interpretaziorik.

Eranskina. Yogyakartako printzipioen sinatzaileak

● **Philip Alston** (Australia), exekuzio bidegabe, sumario eta auzibidetik kanpokoen gaineko Nazio Batuen Erakundearen errelatore nagusia eta New York-eko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea.

● **Maxim Anmeghichean** (Moldavia), Gay eta Lesbianen Nazioarteko Elkartea – Europa.

● **Mauro Cabral** (Argentina), ordobako Unibertsitate Nazionaleko ikertzailea, Argentina; Gay eta Lesbianentzako Giza Eskubideen Nazioarteko Batzordea.

● **Edwin Cameron** (Hegoafrika), Apelazioetako Gorte Goreneko magistratua, Bloemfontein, Hegoafrika.

● **Sonia Onufer Corrêa** (Brasil), HIESaren Brasilgo diziplinarteko Elkarteko (ABIA) ikertzaile elkartua eta Politika eta Sexualitaterako Behatokiko lehendakarikidea (Adituen Bilerako lehendakarikidea).

● **Yakin Ertürk** (Turkia), Emakumeen aurkako indarkeriaren eta haren kausa eta ondorioen gaineko Nazio Batuen Erakundearen errelatore berezia, eta Ekialde Ertaineko Unibertsitate Teknikoko Soziologia Saileko irakaslea, Ankara, Turkia.

● **Elizabeth Evatt** (Australia), Emakumearen aurkako Diskriminazioa Deuseztatzeko Nazio Batuen Erakundeko Batzordeko kide ohia eta lehendakaria, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko kide ohia eta Juristen Nazioarteko Batzordeko mandataria.

● **Paul Hunt** (Zelanda Berria), Maila goreneko osasun fisiko eta mentala izateko pertsona orok duen eskubidearen gaineko Nazio Batuen Erakundearen errelatore berezia eta Essex-eko Unibertsitateko Legeen Saileko irakaslea, Erresuma Batua.

● **Asma Jahangir** (Pakistan), Pakistango Giza Eskubideen Batzordeko lehendakaria.

● **Maina Kiai** (Kenya), Kenyako Giza Eskubideen Batzorde Nazionaleko lehendakaria.

● **Miloon Kothari** (India), Etxebizitza egokia izateko eskubidearen gaineko Nazio Batuen Erakundearen errelatore berezia.

● **Judith Mesquita** (Erresuma Batua), Giza Eskubideen Zentroko ikertzaile nagusia, Essex-eko Unibertsitatea, Erresuma Batua.

● **Alice M. Miller** (Ameriketako Estatu Batuak), Osasun Publikoko Fakultateko irakasle laguntzailea eta Giza Eskubideen Programako lehendakarikidea, Columbiako Unibertsitatea, Ameriketako Estatu Batuak.

● **Sanji Mmasenono** Monageng (Botswana), Gorte Goreneko epailea (Gambiako Errepublika), Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikar Batzordeko mandataria, Tratu edo Zigor Krudel, Jasangaitz edo Iraingarriak Debekatzeko eta Prebenitzeko Araulerroak –Robben Uharteko Araulerroak– Afrikan nola aplikatzen diren Jarraitzeko Batzordearen lehendakaria (Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikar Batzordea).

● **Vitit Muntarbhorn** (Thailandia), Koreako Herri Errepublika Demokratikoko giza eskubideen egoeraren gaineko Nazio Batuen Erakundearen errelatore berezia eta Chulalongkorn-eko Zuzenbide Fakultateko irakaslea, Thailandia, (Adituen Bilerako lehendakarikidea).

● **Lawrence Mute** (Kenya), Kenyako Giza Eskubideen Batzorde Nazionaleko mandataria.

● **Manfred Nowak** (Austria), Torturaren eta bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Jasangaitz edo Iraingarrien gaineko Nazio Batuen Erakundearen errelatore berezia; Vienako Unibertsitateko Giza Eskubideen irakaslea, Austria, eta Ludwig Boltzmann Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.

● **Ana Elena Obando Mendoza** (Costa Rica), abokatu feminista, emakumeen eskubideen aldeko ekintzailea eta nazioarteko aholkularia.

● **Michael O'Flaherty** (Irlanda), Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko kidea, Nottingham-eko Unibertsitateko Giza Eskubide Aplikatuen irakasle eta Giza Eskubideen Legislazio Zentroko Giza Eskubide Aplikatuen lehendakarikidea, Erresuma Batua (Yogykarta-ko Printzipioen elaborazioaren errelatorea).

● **Sunil Pant** (Nepal), Diamante Urdina Elkarteko lehendakaria, Nepal

● **Dimitrina Petrova** (Bulgaria), Eskubide Berdintasunerako Funtsaren zuzendari exekutiboa.

● **Rudi Muhammad Rizki** (Indonesia), Giza eskubideen eta nazioarteko solidaritatearen gaineko Nazio Batuen Erakundearen errelatore berezia, Padjadjaran Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko katedraduna eta Gai Akademikoen dekanordea, Indonesia.

● **Mary Robinson** (Irlanda), Eskubideak Gauzatzen: Globalizazio Etiko baterako Ekimenaren sortzailea, Irlandako lehendakari ohia eta Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko goi komisario ohia.

● **Nevena Vuckovic Sahovic** (Serbia), Nazio Batuen Erakundeko Haurren Eskubideen Batzordeko kidea eta Haurtzaroaren Eskubideen Zentroko lehendakaria, Belgrad, Serbia.

● **Martin Scheinin** (Finlandia), Terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak babesteko Nazio Batuen Erakundearen errelatore berezia, Zuzenbide Konstituzionaleko eta Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria, Åbo Akademi Unibertsitatea, Finlandia.

● **Wan Yanhai** (Txina), AIZHI Ekintza Proiektuaren sortzailea eta Osasun Hezkuntzarako AIZHIXING Institutuaren zuzendaria, Beijin.

● **Stephen Whittle** (Erresuma Batua), Manchester-eko Unibertsitate Metropolitanoko Berdintasun Legeriako irakaslea, Erresuma Batua.

● **Roman Wieruszewski** (Polonia), Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko kidea eta Poznan Giza Eskubideen Zentroko zuzendaria, Polonia.

● **Robert Wintemute** (Kanada eta Erresuma Batua), Zuzenbide Fakultateko Giza Eskubideen Legeriako irakaslea, King's College, Londres, Erresuma Batua.